

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rufino Etxebarria Petralanda

*Muxika,
Bizkaia
(1922-2011)*

Aurkibidea



Biografia



1922. urteko abenduan jaio zen Gorozikako (gaur egun Muxika) Asua Bekoan. Aita bertakoa zuen eta ama Dimako Indusi auzoko Zamakola errotako alaba. Aita otzaragilea zuen, eta Ortuellako meategietan beharrean jardundakoa. Bederatzi senidetatik laugarrena izan zen. Bi urterekin Dimara joan ziren bizitzera eta bertan egon ziren lehenengo jaunartzea egin arte. Bere anaia zaharrena gerrako "Crucero Baleares" ontzian hil zen. Gerra garaian, Sodupera joan ziren ebakuatuta, eta handik bueltan, Diman egon ziren hiru urtez. Herrera bueltatzerakoan, bertako harrobian hasi zen lanean: Gernika-Lumoko herria berreraikitzeke harriak ateratzen eta Ajuria auzoko ponte-ontziko harriekin, besteak beste. Urte askoan Bilboko zilargintza eta bitxigintza enpresa batean aritu zen. Bere auzoko Munaguren "Munune" baserriko [Pilar Etxeandia Legina](#) rekin ezkondu zen etxe horretara. Bi seme-alaba hazi zituen. Bere emaztearekin egin zitzaion elkarriketa. Arratiako kontuak kontatzerakoan, sarritan, batik bat besteen esanak eta hango elkarriketak azaltzerakoan, Arratiako euskara darabil.

Zintak

MUX-031

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarriketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-08-03
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

MUX-032

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-08-03
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aita meategietarako otzarak egiten

- **Erref:** MUX-031/002
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:02:03. **Bukatu:** 00:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak

Laburpena:

Rufinoren aitak Ortuellako meategietako otzarak egiten egiten zuen lan. Bere amamaren neba bat ere bertan aritu zen; eta, etxean bere berririk ez zutela-eta, bere amama Bilbora joan eta handik oinez joan zen nebaren bila. Aurkitu eta etxera ekarri zuen.

2. Anaia 'Crucero Canarias'en hil zuten

- **Erref:** MUX-031/003
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:03:47. **Bukatu:** 00:06:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Rufino-eta bederatzi seme-alaba izan ziren, bera laugarrena. Bere anaia zaharrena gerrako Crucero Balearesen hil zen. Lehenago "Sota y Compañia"ko Vapor Uria ontzian ibili zen Frantziatik ikatza ekartzen. Cervera itsasontziak beraiena hartu eta Ferrolera eramán zuten. Familiakoak Gueñesen egon ziren ebakuatuta, eta irratiz entzun zuten berria.</p>

3. Ferroletik dirua jaso zutenekoa

- **Erref:** MUX-031/004
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:06:24. **Bukatu:** 00:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Rufinoren anaia zaharrena gerrako Crucero Canarias itsasontzian egon zenean, denbora askoan egon ziren bere berririk jakin barik. Baina, halako batean, gutun bat heldu zen etxera: bere anaiarena zen. Gutun hura erantzun ostean, bueltan etorri zitzaien beste bat Gernikako banketxera joan zitezen esanez. Dirua bidali zien Ferroletik.</p>

4. Gorozikar asko beraien artean ezkontuta

- **Erref:** MUX-031/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Etxean labeko sua egiten zuten, ogia. Gorozikar asko ezkondu ziren beraien artean, gutxi batzuk ezkondu ziren kanpokoekin.

5. Asuako eskola, udaletxekoa eta eskola berria

- **Erref:** MUX-031/010
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:16:19. **Bukatu:** 00:19:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Rufino umetan asko egoten zen Diman, amaren jaiotetxean. Gerran ebakuazioan egon ostean, Diman egon zen hiru urtez. Pilar 7 urterekin hasi zen eskolara: lehenengo, Asuako baserri batean egon ziren eta gero joan ziren gaur egun barnetegia dagoen lekuan zegoen eskolara. Rufino-eta, osterá, udaletxeko eraikinean egon ziren. Eskolara ahal zutenean joaten ziren, etxean lan egin behar zen-eta. Pilarrek 14 urtegaz utzi zuen eskola.

6. Gaztetan harrobian eta errementari ibilitakoa

- **Erref:** MUX-031/015
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Soldadu joan orduko Goroizika bertako harrobian ere egon zen. Gernika berreraikitze lanetan bertako harri asko erabili ziren. Iluntzetan errementari lanak ere egiten zituen.

7. Harrobiko lanak

- **Erref:** MUX-031/016
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Harrobian egiten zuten lana azaltzen du. Gernikako Taberna Vasca taberna-jatetxe ezaguna ere bertoko eta Munitibarko harrobietako harriekin eginda dago. Goroizikako elizako altara ere bertako harriarekin egin zuten. Ajuriako elizako potontzia, pila, ere beraiek egin zuten. Harrobian izandako istripu baten gizon bat hil zen.

8. Harrobiko beharginak

- **Erref:** MUX-031/018
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:32:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Harrobiko beharginak zeintzuk aipatzen ditu: Eguskitzako Damaso eta Paulino, Rafael Arandia, Pagaiko Gregorio eta Esteban... denak ingurukoak. Gerraostean, etxera bueltatukoan, hasi zen harrobian lanean. Errementariaren lana Sotak egiten zuen eta ostean Rufino bera ere hasi zen. Harri handiak ebakitzeko pikeak zorrotzen zituzten. Sota gizon ona zen, baina jenio bizikoa.

9. Errotarriak ere egiten zituzten

- **Erref:** MUX-031/019
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:32:39. **Bukatu:** 00:36:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Gorozikako harrobiko harria oso ona zen. Oka auzoan ere bazegoen harrobia. Errotarriak ere egiten zituzten. Lemoako Basiliorekin eta Aldanatar "Mangantea" tabernariarekin bizi izandako istorioa gogoratzen du.

10. "Mangantea"ren kontura tragoa debalde

- **Erref:** MUX-031/021
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:37:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Behin harrobitik lanetik irten eta etxeratzean tabernara joan ziren, sakristauaren tabernara. Tabernariari kontatu ziotenean zer egin zioten lehenago "Mangantea" tabernariari, tragoa eta jatekoa debalde atera zien.

11. Diman eskolarik ez, baina errezoak bai

- **Erref:** MUX-031/026
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:46:13. **Bukatu:** 00:48:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Rufinoren arreba bat jaiotzerakoan, 2 urte zituela, Diman egon zen bizitzen. Lehenengo jaunartzea egin arte egon zen bertan. Diman ez zen eskolara joan, baina errezo kontuak ondo irakatsi zizkieten etxean. Etxean derrigorra zen errezatzea. Gerraostean ere, berriro egon zen bertan, oso gustura gainera. Amumak domeketan diru apur bat ematen zion. Errotatik lortzen zuten apur bat.

12. Rufino errotarriak pikatzen

- **Erref:** MUX-031/027
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:48:13. **Bukatu:** 00:51:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Rufinoren amaren jaiotetxea, Dimako Zamakola, errota zen eta bertan egin zituen umetan zein gaztetan egonaldi luzeak. Errotan ere lan asko egindakoa da eta errotarriak pikatzen ere ikasi zuen. Gerraostean, Gorozika inguruan Zugastietako errota egon zen zabalik eta Rufino ere bertara joaten zen laguntzen. Ordura arte Mauma auzoko Juan Jose errotaria joaten zen laguntzera.</p>

13. Errotako lanak; auzorako argindarra

- **Erref:** MUX-031/028
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:51:29. **Bukatu:** 00:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Rufino askotan aritu zen amaren jaiotetxean, Diman, errotako lanetan. Bertako lanak zeintzuk ziren azaltzen du. Gariaren errota bat zuten eta artoarenak bi. Horietako batetik argia jarri zuten auzorako.</p>

14. "Mendie" eta errotako zorroak

- **Erref:** MUX-031/029
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:56:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Errotaria baserritarrak eramandako ehuneko zehatz bategaz gelditzen zen, "mendie"gaz. 20 kiloko zorroak oso jende gutxik eramaten zituen lepoan, baina hori egiten zuen andre bat bazen Diman. Dimako Baltzola koben ondokoak astoz joaten ziren errotara.</p>

15. Izekoari mutiko batzuek egin zioten gaiztakeria

- **Erref:** MUX-031/030
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:56:52. **Bukatu:** 00:58:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Rufinoren izeko bat, txikia izan arren, indartsua zen. Eta, behin, Rufinoren zerrarekin belarra mozten ari zela, inguruan zeuden mutil batzuek harriak jarri zizkioten otzaran. Hala ere, otzara altxatzea lortu zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com